

### HOBETO IDAZTEKO TRESNAK: ITZULGAILUA, ZUZENTZAILEA...

Gaur egun hobeto idazteko baliabide oso praktikoak ditugu eta horiek ezagutzea garrantzitsua da: **itzulgailu automatikoak** (testuak itzultzen laguntza handia ematen dutenak), **zuzentzaile ortografikoa** ez despistatzeko, **agiri elebidunak egiteko irizpideak...** Pilula honetan horien berri duzu:



### HERRAMIENTAS PARA ESCRIBIR MEJOR

Hoy en día tenemos recursos muy prácticos que nos ayudan a escribir mejor y es importante conocerlos: **traductores automáticos** (que sirven para traducir más rápidamente), **correctores ortográficos** para no despistarnos, **criterios para la elaboración de documentos bilingües...** En esta píldora hemos reunido los tres:

### 4. PILULA Euskaraz idazteko tresnak - 4ª PÍLDORA Herramientas para escribir en euskera Auto-ebaluazio galdetegia – Cuestionario de evaluación

#### EUSKARALDIKO LEHIAKETAREN IRABAZLEAK

Elkarrekin Euskaraldia egitea lortu dugu! Eta, besteak beste, **ilusionagarria eta masiboa** den ariketa bat dela erakutsi dugu. **Euskarak merezi du!** Zer-nolako bizipenak izan dituzue elkargokideok Euskaraldian zehar? Euskaraz gehiago egin duzue? Ohituraren bat aldatu? Sorpresaren bat jaso?

Bidali zure testigantzak: [basqueproeus@bm30.eus](mailto:basqueproeus@bm30.eus).

Euskaraldian bi ekimen antolatu ditugu. **Topaketa birtualean** egoera berriak ekarri-tako bizipenak trukatu genituen eta **kronika osoa** Euskararen txokoan bildu dugu.

Hainbat gai atera ziren, adibidez, tristura giroan elkartzeak eta talde-lanean ekiteak duten garrantzia.

Bikotekako lehiaketa ere egin dugu, eta erantzun zuzenak azpian daukazue. Hauek dira kultur bonu eta saski bana jasoko duten bikoteak, zorionak!

#### GANADORES-AS DEL CONCURSO DE EUSKARALDIA

¡Juntos-as hemos conseguido hacer el Euskaraldia! Y, entre otras cosas, hemos demostrado que es un ejercicio **ilusionante y masivo**. ¡El euskera merece la pena! ¿Qué experiencias habéis tenido los y las colegiados-as durante Euskaraldia? ¿Habéis hablado más en euskera? ¿Habéis cambiado algún hábito? ¿Habéis recibido alguna sorpresa?

Envía tus testimonios: [basqueproeus@bm30.eus](mailto:basqueproeus@bm30.eus).



En Euskaraldia hemos organizado dos actividades. En el encuentro virtual intercambiamos experiencias sobre qué cambios hemos hecho a raíz de la nueva situación y hemos recogido **la crónica** en el rincón del Euskera.

Se abordaron temas como la importancia de mantener espacios de encuentro en el ambiente de tristeza que reina, así como del trabajo en equipo.

También hemos realizado un concurso por parejas, tenéis abajo las respuestas correctas. Estas son las parejas que recibirán un bono cultural y una cesta, ¡enhorabuena!

Laura Verdugo Tabuena eta Antonio Lanseros García  
(Herrilantetako Ingeniariak)  
Alexander Azpiri Robles eta Urtzi Gorostiaga Mendizabal  
(Graduatu Soziala eta Abokatuak)  
Ángela Fernandez San Juan eta Nora Mateos Pascual  
(Gizarte Langileak)

## UR, LUR, ELUR, ZUR... NOLA OSPATZEN ZEN URTE BERRIA LEHEN?

Abenduaren 31n Baztan, Basaburua, Imotz, Larraun, Burunda eta Arakileko gazteak haien herrietako iturrietara joaten omen ziren eta gaueko hamabietako kanpaien zain egoten ziren. Ordua zenean **urteko lehenengo ura pitxarretan hartzen zuten** eta apaizari, alkateari eta herritarrei ematen zieten **"Ur goiena ur barrena"** koplak kantatzen zuten bitartean eta trukean zerbait jasotzen zuten, urtats izeneko saria. Urdiainen oraindik eusten diote tradizio horri.



"Ur goiena eta ur barrena" nondik dator? Zibilizazio askotan zeruan ura **zegoela uste omen zuten** eta horri esker euria egiten zuela eta hortik dator "ur goiena".

Horrez gain lur azpian ere laku handi bat zegoela uste zuten eta handik iturriak sortzen zirela eta hortik dator "ur barrena". **Horregatik ur bieideitzen zieten** koplak honekin.

**"UR" ura baino zerbait gehiago da.** Hainbaten iritziz materia bizia esan nahi du eta horregatik ditugu LUR, eURi, eLUR, zUR, haUR, hezUR. Horiez gain eurite, elurte eta urte ere baditugu. Urtea uraren zikloa izango litzateke, eta beraz bizitzaren zikloa. **Horrela, "ur berria" ez da soilik ura, baita "urte berria" eta "Ama Lurraren ziklo berria" ere.**

## ¿CÓMO SE CELEBRABA EL AÑO NUEVO ANTES? UR, LUR, ELUR, ZUR...

El 31 de diciembre la juventud de Baztan, Basaburua, Imotz, Larraun, Burunda y Arakila acudía a las fuentes de sus pueblos y esperaba a las campanadas de las doce de la noche. Cuando era la hora, **tomaban el primer agua del año en jarras** y se la entregaban al cura, al alcalde y a los/as vecinos/as mientras cantaban la copla **"Ur goiena ur barrena"** (agua de arriba y agua de dentro) y a cambio recibían un premio llamado **urtats**. En Urdiain se sigue manteniendo.



¿De dónde viene "agua de arriba y agua de dentro"? **En muchas civilizaciones creían que había agua en el cielo y que gracias a ello llovía y de ahí "el agua más alta".**

Además, creían que también había un gran lago subterráneo del que surgían fuentes y de ahí se deriva "Ur barrena". **Por eso llamaban a las dos aguas con esta copla.**

**En euskera, "agua" (ur) es algo más que agua.** Muchos opinan que significa materia viva y por eso tenemos *lur* (tierra), *huri* (lluvia) *elur* (nieve), *zur* (madera), *haur* (niño-a), *hezur* (hueso). Además, tenemos *eurite* (lluvias), *elurte* (nevadas) ¡y *urte* (año)! El año sería el ciclo del agua y, por tanto, el ciclo de la vida. **Así, el "agua nueva" no es sólo agua, sino también "año nuevo" y "ciclo nuevo de la Madre Tierra".**

### Abestia eta kondaira - Canción y leyenda

<https://youtu.be/iwXXn1hzUNg> [http://urtesasoia.com/?page\\_id=75](http://urtesasoia.com/?page_id=75)

#### Lehiaketaren erantzun zuzenak

##### Respuestas correctas del concurso

- Hitz hauetatik zein da bizkaierazko hitza? Berakatz
- Zer esan nahi du "zoaz antzarrak ferratzera" esapideak? Norbaiten aurkako haserre adierazteko eta pikutara bidaltzeko erabiltzen da
- Euskaraz zer zenbakik esan nahi du 'asko'? 11k
- Non dago barruan bi harri handi dituen baseliza? Arretxinagan
- Zergatik dago Arabako armarrian Zabalateko gaztelua? Nafarroa-Arabako mugak defendatzeko oso garrantzitsua zelako
- Hauetatik, zein da euskal atsoitza? Ogi gogorrari hagin zorrotza
- Zein da "Gogoko tokian, aldaparik ez" atsoitzaren esanahia? Gustatzen zaizkigulako egiten ditugunak normalean nahiz eta zailak izan gustura egiten ditugu.
- Hauetatik, zein EZ da euskal atsoitza? Zenbat buru, zatoz artaburu (hau, ordea, bada: Zenbat buru, hainbat aburu. Aburu=iritzia)
- Noiz hasi zen Elkargoak Euskaraz proiektua? 2020an
- Hauetatik, zein Elkargo Profesional EZ da proiektuko parte-hartzailea? Euskadiko Albaitarien Argi Legezko Elkargoa (Bizkaikoa da)
- Zer da Elkargo Ekin? Motibazio-ekimenak, giro lasaian euskaraz aritzeko, kontzientzia pizteko eta elkarrekin jarduteko.
- Hauetatik, zer zerbitzu EZ du eskaintzen proiektuak? Eguraldi iragarpena